



INGURUMEN IRIZPIDEAK KONTRATAZIOETAN TXERTATZEKO LABURUPEN-FITXA:

LOREZAINZA ZERBITZUA

Argitalpen-data: 2018

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA


Landutako dokumentua, ingurumen irizpideak erakunde pribatu eta publikoen erosketa eta kontratazioetan txertatzeko erraztasuna eta zabalkuntza sustatzen duten dokumentu bilduma baten barne hartzen da.

Eskuliburu honen bidez, argibide argiak eta praktikoak eman nahi dira, erosketa eta kontratazio publiko berdearekin lotutako helburu guztiak ahalik eta modu errazenean eta pausoz pauso landu ahal izateko. Horrez gain, ingurumenean eragin txikiagoa duten produktu edo zerbitzuak identifikatzen dituzten etiketa nagusiak berrikusten dira. Azkenik, erosketa eta kontratazio prozesuko une bakoitzerako jarraibideak ezartzen dira, prozesua modu arrakastatsuan bukatu dadin.

EROSKETA ETA KONTRATAZIO PUBLIKO BERDEAREN ESKULIBURUA Eusko Jaurlaritzak, Ihobe-Ingurumen Jarduketarako Sozietate Publikoaren bitartez, burututako laguntza-tresna garrantzitsuena da.

Eskuliburu honek, administrazio publikoko zail guztietan erosketa eta kontratazio publiko berdea zabaltzeko beharrezkoa den informazioa eskaintzen du.

Argitalpenaren testu osoa eskuragarri dago www.ihobe.eus webgunean.





GURE ERABAKIA:

INGURUMEN-IRIZPIDEAK DITUEN LOREZAINITZA-ZERBITZUA KONTRATATZEA

Dudarik gabe, berdegunek eta elementu begetalek ingurumen-, estetika- eta bizi-kalitateko onurak ematen dizkigute. Baina horien diseinuak, kudeaketak eta mantentze-lanek ingurumen-inpaktu negatiboak sor ditzakete, eta gutxitu egin behar dira.

Kontratazio eta erosketa berdearen bidez ekarpen positiboa egin dezakegu, lorezaintza zerbitzuan ingurumen-irizpideak sartuta. Nola? Ikus dezagun.



ZER JAKIN BEHAR DUGUN

Ingurumen-irizpideak dituen lorezaintza-zerbitzuak inpaktu negatibo nagusienak ahalik eta gehiena gutxitzen lagun diezaguke. Hona hemen horri buruzko zenbait ideia:

Zenbait kontzeptu nagusi

Lorezaintza-zerbitzuko zer alderdi hartu behar dira kontuan ingurumen-inpaktuak negatiboak direla eta?

1. Berdeguneen plangintza eta diseinua, geroko kontsumoetan eta gehiegizko inpaktuetan eragin baitezakete.
2. Mantentze-lanak eta kudeaketa, batez ere erabiltzen diren lorezaintzako produktuengatik (ongarriak eta medeatzea, biozidak...) eta ur-kontsumoagatik.
3. Lorezaintzako makinak eta ibilgailuak, erregaiak kontsumitzen dituztelako, atmosfera kutsatzen duten gasak isurtzen dituztelako, zarata sortzen dutelako eta ingurumenerako kaltegarriak diren olio lubrifikatzaileak askatzen dituztelako.
4. Sortzen diren era askotako hondakinak.




Zer neurri har daitezke inpaktu horiek gutxitzeko?

- Berdeguneen diseinua hobetu.
- Edateko uraren kontsumoa arrazionalizatu.
- Produktu kimiko gutxiago erabili, eta ingurumenaren aldetik onenak direnak hautatu.
- Landare berrien eta garaiko landareen erosketa doitu, eta landareak beren lanean ingurumen-neurriak aplikatzen dituzten enpresei erostea lehenetsi.
- Erregai fosil gutxiago kontsumitu, eta gas kutsatzaileen isurpenak eta makina eta ibilgailuen zarata gutxitu.
- Ahalik eta hondakin gutxiena sortu, eta behar bezala kudeatu (bai arriskutsuak, bai ez-arriskutsuak).
- Langileak informatu eta prestatu, ingurumeneko eta lan-osasuneko jardunbide onak har ditzaten.
- Berdeguneen erabiltzaile izan daitezkeenei eta herritarrei, oro har, hartutako ingurumen-neurrien eta horien garrantziaren berri eman eta horretaz kontzientziatu.

Zenbait kontzeptu nagusi

INGURUMEN-ZIURTAGIRIAK, zer ziurtagiri daude eta zer bermatzen dute?

- Lorezaintzako produktuekin lotutako inpaktuak gutxitzeko modurik errazena ekoetiketak dituzten produktuak erabiltzea da. Hauek dira ekoetiketa ofizial garrantzitsuenak:

Etiketa eta logotipo ofiziala	Europako Etiketa Ekologikoa	Aingeru Urdina	Beltxarga Zuria	Austriako Ekoetiketa
				
Mendeatzeak eta hazkuntza-substratuak	●			●
Landareetako edukiontzi biodegradagarriak		●		
Lorezaintzako makinak		●	●	●
Olio lubrifikatzaile biodegradagarriak	●	●		●

Enpresen beren ziurtagiriak. Produktuen ekoetiketez gain, komeni da Ingurumen Kudeaketako Sistemen ziurtagiria ere izatea enpresek, zeinak haien jarduerako arauak eta gutxieneko ingurumen-alderdi batzuk betetzen dituztela ziurtatzen duten. EMAS, ISO 14001 eta Ekoscan dira ziurtagiri nagusiak. Horrenbestez, lorezaintza-enpresak hautatzean, lehentasuna eman behar zaie ziurtatutako Ingurumen Kudeaketako Sistemaren bat duten enpresei.



EROSKETATIK HONDAKINEN KUDEAKETARA BITARTEKO BIDEA

Lorezaintzako zerbitzu bat kontratatzeko prozesuan nahiz berezko kudeaketa egin behar denean, erosle, kudeatzaile eta kontsumitzaile gisara erabaki eta eragin dezakegun zenbait une daude. Zer unetan? Nola izan iraunkor?

ZEIN DIRA NIRE BENETAKO BEHARRAK?

Urratsa. Beharrak

- Lehendabizi, kudeatu beharreko eremu eta elementu berdeak ezagutu eta inbentariatu egin behar dira, bai eta eremu-motaren arabera sailkatu ere, hala nola parkeak, lorategiak, zuhaiztiak, biribilguneak, erdibitzaileak...
- Horrekin, diseinuaren eta mantentze- eta kudeaketa-lanen plangintza egin dezakegu.

NOLA DISEINATU BERDEGUNEAK INGURUMEN-ERAGINKORTASUNEKO IRIZPIDEekin?

2. Urratsa. Berdeguneak diseinatzeko irizpideak

Berdegune berria gaitu behar bada, lehenengo urratsa da diseinuan ingurumen-irizpideak sartzea, mantentze-lanetan izan daitezkeen inpaktuak gutxitzeko. Hona hemen garrantzitsuenak (obrei eta eraikitze-materialei lotutakoak sartu gabe):

- **Esleitutako funtzioaren arabera diseinatzea** eremua, edo erabilera kontuan hartuta birmoldatzea, esparruaren baldintzak (intsolazioa, lurzoruaren kalitatea, aldapa eta abar), landaretzaren etapa guztiak (landatzea, haztea eta mantentzea) eta urtean zehar egin beharko diren lanak (ebakitzea, ureztatzea, orriak biltzea, inausketa...) kontuan hartuta.
- **Berdeguneak ahalik eta gehiena bertakotzea**, hautatutako espeziei eta horiei eusteari dagokienez (inausketak edo ebakitzeak gutxitzeko). Kontuan izan bertako espezieek edo bertakotuek, egoera klimatikoei aurre egiteaz gain, inguru naturalari segida eta lotura ematen diotela.
- **Espezieak beren behar hidrikoen arabera** kokatzea, eta landare-espezie osagarriak taldekatzea, izurritei aurre egiteko. Horrek guztiak ur eta biozida gutxiago kontsumitzen laguntzen du.
- **Garaiko loreak** ahalik eta gutxiena erabiltzea, eta oso eremu zehatzetan erabiltzeko uztea, ur eta ongarri asko behar izaten dutelako eta horiei eustekak kostu handia sortzen duelako. Horien orde, loredun landare bizikorrek eta erraboldunak erabil daitezke, ez baitute ordezkaterik eskatzen.

ZER ETA NOLA KONTRATATU?

3. Urratsa. Lorezaintza-zerbitzuaren kontratazioa

Lorezaintza-beharrak zehaztu ondoren, zerbitzua kontratatzeko unea da (edo gure zerbitzua egokitzekoa). Nola? Gai honekin lotutako ingurumen-irizpideak tartekatuz.

- **ENPRESAK hautatzeko kontuan hartu beharreko ingurumen-irizpideak:**
 - ⇒ Zerbitzua kudeatzeko kanpo-enpresa bat kontratatzea erabaki bada, lorezaintza zerbitzurako Ingurumen Kudeaketako Sistemaren (IKS) baten bidez ziurtatuta dauden enpresak hautatzea gomendatzen da (esate baterako, EMAS, ISO 14001, Ekoscan edo antzeko ziurtagiriren bat dutenak).
 - ⇒ Horrelako ziurtagiririk duen enpresarik aurkitu ezean, lan-osasuna eta ingurumena babesteko lan-prozedurak eta -jarraibideak eratzeko eskatu behar zaio hautatutako enpresari kontratuan, bai eta horiek aplikatzeko beharrezko mekanismoak ezartzea ere (prestakuntza bidez, erregistroen bidez eta abarren bidez).
 - ⇒ Edonola ere, enpresek frogatu egin behar dute lorezaintzako jardunbideei eta zerbitzuarekin lotutako ingurumen alderdiei buruzko prestakuntza duen koordinatzaile bat zeregin horretara bideratuko dutela.
- **LOREZAINZA-PRODUKTUETARAKO ingurumen-irizpideak:**
 - ⇒ **Ongarriak eta lur-medeatzeak.** Ongarri kimikoak, eremu berezietan erabiltzeko soilik utzi behar dira (lorea ematen duten garaiko landareetarako edo egoera berezietan bizi direnetarako). Gainerako eremuetarako, lurzorua kalitate fisiko eta kimikoa hobetzeko konposta edo konpost asko duten lurzoru medeatzeak erabili behar dira, ahal dela, zohikatzik gabeak eta ekoetiketadunak.
 - ⇒ **Biozidak edo produktu fitosanitarioak** (intsektizidak, herbizidak, bakterizidak eta beste substantzia batzuk): enpresak ahal eta gutxien erabiliko ditu eta prebentzio-neurrien plan bat aurkeztu beharko du (esaterako, lur-estalkia), aplikatuko dituen izurrite-kontrol integraturako teknikak zehaztuta. Gainera, arrisku-adierazpenarekin (H, produktuen segurtasuna-fitxan adierazia) sailkatuta ez dauden eta ekoetiketa duten produktuen erabilera aztertu behar litzateke.
 - ⇒ **Landare berriak erostea eta jartzea:** bertako espezieetako landareak eta lore bizikorak dituztenak lehenetsi behar ditugu. Horretaz gain, metodoekin eta hazkuntza-prozesuekin lotutako beste irizpide batzuei eman behar diegu lehentasuna. Horretarako, landareak haztegitan edo lanean ingurumen-neurriak ezarri dituzten enpresei erostea lehenetsi behar da, eta landareak jatorri begetaleko edukiontzi konpostagarrietan edo itzul daitekeen plastikozko loreontzi edo azpiletan emateko eskatu behar zaie.

3. Urratsa. Lorezaintza-zerbitzuaren kontratazioa

- **Lorezaintzako MAKINERIAREN ETA IBILGAILUEN ingurumen-irizpideak**
 - ⇒ **Makinerian**, % 100 propultsio elektrikokoak izatea hobetsiko da, antzintasun txikia izatea (emisio gutxiago dituztelako), edota ekoetiketa.
 - ⇒ **Ibilgailuetan**, flotaren batez besteko emisioak EURO 5 izan beharko dira, eta txikiagoak hobetsiko dira (EURO 6), eta CO2 igorpen gutxiagoak. Informazio gehiago nahi izanez gero, ikus laburpen-fitxa: IBILGAILUAK.
 - ⇒ **Koipeak eta olio lubrifikatzaileak**: aplikazio irekietan (bi denborako motorrak, motor hidraulikoak, kate-motorrak, koipeak), biodegradagarritasun handiko eta toxikotasun gutxiko landare-jatorriko olio eta koipe lubrifikatzaile potentzialki ez-biometagarriak erabiltzea lehenetsiko da. Ibilgailuen motorretan, olio lubrifikatzaile (gutxienez % 25ean) berroneratuak eskatuko dira.
- **Lorezaintza MANTENTZE-LANETARAKO ingurumen-irizpideak:**
 - ⇒ **Ureztaketa nola aplikatu**: ureztatze-beharrak ahalik eta gehiena gutxitzeko, eta, ahal dela, euriaren ziklo naturaletara egokitzeko, berdegunearen diseinua landu egin behar da (ikusi 2. unea). Horretaz gain, enpresak ureztatze-plana aurkeztu behar du beharrak, edatekoa ez den beste ur-iturri batzuk erabiltzea eta sistema eraginkorrak instalatzea ebaluatzen laguntzeko.
 - ⇒ **Sega, inausketa eta orri-bilketa**: arriskurik sortzen ez badu, ahalik eta gutxiena inausi behar dira arbolak eta zuhaixkak, beren forma naturala gara dezaten.
- **Lorezaintza HONDAKINAK kudeatzeko ingurumen-irizpideak:**
 - ⇒ **Sortutako hondakinak behar bezala kudeatzea**: gaikako bilketa egin behar da. Hondakin ez-arriskutsuak eta hiri-hondakin gisara onar daitezkeenak dagokien edukiontzietan utzi behar dira. Hondakin arriskutsuak (olioak, produktu fitosanitarioen ontziak eta abar) baimendutako kudeatzaileei utzi behar zaizkie, trata ditzaten.
 - ⇒ **Sortutako materia organikoaren tratamendua** sustatzea: zerbitzuak sortutako hondakin organikoak konpostatzeko enpresaren proposamenak balioetsi behar dira.
- **KOMUNIKAZIO, PRESTAKUNTZA ETA INFORMAZIOAREKIN lotutako beste irizpide batzuk:**
 - ⇒ **Langileen prestakuntza**. Langileek honi buruzko prestakuntza izango dutela bermatu behar da: lorategien diseinu, ureztatze-kontrolerako neurri, ongarri eta bioziden erabilera eta dosifikazio eta hondakinak behar bezala biltzeari eta kudeatzeari buruzko prestakuntza.
 - ⇒ Erabiltzaile diren pertsona eta taldeei **informazioa hedatzea eta sentsibilizatzea**. Zerbitzuaren parte direnez, berdeguneen diseinuan, mantentze-lanetan eta kudeaketan hartutako ingurumen-neurrien berri eman behar zaie eremu horiek erabili eta horiez gozatu behar dutenei; izan ere, horrela soilik balora dezakete neurri horien garrantzia eta haiek dakartzaten onurak. Komeni da, halaber, erabiltzaileen gogobetetze-maila zein den jakitea eta biltzea, ingurumen erantzukidetasunean aurrera egiteko.

3. Urratsa. Lorezaintza-zerbitzuaren kontratazioa

- ⇒ **Informazio-bilketa.** Enpresak urteko txostena aurkeztu behar du, datu hauekin: produktuen balantzea eta erabilitako kantitateak, betiere erabilitako dosiak gutxitzeko helburuarekin (ahal dela); makinek eta ibilgailuek kontsumitutako erregai-kantitatea; sortutako hondakin-kantitatea, gaika, eta prestakuntza planaren garapena

Irizpide horien guztien artetik, bete behar direla edo erraz bete daitezkeela uste dugunak eskatu edo balioetsi behar ditugu kontratazioan.

Administrazio batek ezaugarri horiek dituen zerbitzua prozedura ireki edo negoziatu bidez kontratatu nahi badu, Ihobek argitaratutako Kontrataziorako eta Erosketa Publiko Berderako Eskuliburu Praktikoan jaso dira klausula-agirian sartu beharreko irizpide zehatzak (hiru eskakizun-maila daude: oinarritzkoa, aurreratua eta bikaintasun-maila), Sektore Publikoko Kontratuen Legearen arabera.



INFORMAZIO GEHIAGO...

Lotura interesgarriak

- <http://www.ihobe.eus/compra-publica-verde> webgunea kontsulta dezakezu, **gai honi buruzko informazio ugari** eskaintzen baitu, hala nola: lorezaintza zerbitzuari buruzko kapitulu espezifikoa; ingurumen-irizpideak produktu, zerbitzu eta obren kategoriatarako eta beste batzuetarako; eta erreferentziako dokumentazioa, hala nola **Produktuaren ingurumen-etiketatzaren gida**.
- Bestalde, zuzeneko kontsultaren bat egin nahi izanez gero, Ihobe Line telefonora deitu dezakezu: 900 150 864.